

Goi

Goierritarra aldizkaria

373. zenbakia 2010eko urtarrilak 15



**JUAN IGNAZIO
ETXEBERRIA
SAGARDOGILEA**

MUTILOARRAK ZIKLO KROSEAN NAGUSI



Nortasun marka

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

Orain kupela gehiago

AMEB

Jada irekita!



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Egunero 19:00etatik aurrera
Ostiraletan eta asteburuetan
eguerdietan zabalik

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA



Eneritz Gorrotxategi

Urte aldatzearekin batera, egutegia aldatzen da eta badi-rudi askorentzat bizitza aldatzeko unea iristen dela. Abenduaren 24an Olentzero etortzearekin batera, eskarien garaia irekitzen da. Ikazkin bizardunari opariak eskatzen dizkiogu adibidez. Urtarrilaren

31n berriz, urte berria hastearekin batera, urte berrirako asmoen zerrenda hasten dugu; umore ona, pazientzia edota lana, osasuna... eta horrelakoak. Ilusioa ere badi-rudi berpiztu egiten zaigula. Asmo berriei ekiteko indarra ere, zakukadaka dugula dirudi. Urte zaharrean atsegin izan ez dugun hori atzean utzi eta hutsetik hasten garela ematen du.

Ez al genuke urte berri bat bezala hartu behar egun bakoitza? 365 eguneko 12 hilabeteak luze jo dezakete edo oso oso labur, norberaren begien eta begiratzeko modua- ren arabera. Ilusio eta bizipoz hori eguneroko erronketara- ko gordeko bagenu?

Ez al genuke urte berri bat bezala hartu behar egun bakoitza?

Olentzerori egindako zerrendaren arabera, akaso, jakin genezake zein opari ekarriko digun, (beti izaten da, ordea, espero ez den sorpresa politen bat zaku misterioitsuen barruan) baina urteak zer ekarriko digun, nork daki? Jakinmin hori asetzeko, zergatik ez dugu hartzen hasiera- ko ilusio hori bidelagun? Urteari edo egunari gauza berri baten pare ekiteak, ez du esan nahi aurretik bizitako guz- tia atzean utzi behar dugunik, ezta gutxiago ere! Atzeak erakusten duenez aurea nola dantzatu, bizitakoak irakas- ten digu datorrenari nola erantzun. Oztopen aurrean arnasa sakon hartuz eta umore onez, alaitasunez eta mai- tasunez lagunduz gero, ez ote liguken bizitza kolore argi eta biziagoz ikusten lagunduko?



Ion Muñoa

“Atzo gaur bihar zan, eta ame- tsak betetzeko egun bat gutxia- go” abesten zuen Sen musika taldeak doinu nostalgiko pare- gabez. Gure arteko ameslarien ereserki izan liteke horrako kanta; edo Olentzerok oparirik ekarri ez dion zubipeko ume errumaniarraren eguneroko gabon kanta. “Berrito itzuliko balitz, iragan denbora arrotza” erakutsi zigun Xabier Letek, gerora Jon Maiak “eternizatutako” doinu horrekin. Horixe bera kantatuko dute krisiaren ondorioz 50 etxeko urbani- zazioa ezin salduta dabilzan konstruktore gizajoek; edota langabeziak ERE burua JASO ezinda utzi dituen hamaika langilek.

Baina egia da, bai! Ilusioa behar da etorkizunari begira- tzeko. Tristeia baita urte zahar gauean ere hortzetako pas- tak kolore bera duela jabetzea, edo sukaldariak “urteberri on!” esanagatik lantokiko jantokiko menuan aldaketarik ez dagoela igartzea, edo urte berrian ere komunean betiko

Gure irakasle batek esan ohi zuen moduan, “inork ez zian esan bizitza erraza zenik!”

usaina egoten dela konturatzea, edo... tristeia benetan! Eskerrak urte berriari begira (portzierto ze egun arte hitz egin dezakegu *urte berriaz?*) itxaropentsu izateko arrazoiak ere badi-tugun: Obama oraindik beltza da, Zapatero Europako presidentzian, trantsizioa amaituta Euskal Herrian dena “normalduta” dago, kontsumoa berrindar- tzen hasiko da... Izango ez dugu ba itxaropena eta ilusioa? Ikusiko ez dugu ba bizitza kolore argiago eta biziagoz? Beharko egin! Zer erremedio!

Gure irakasle batek esan ohi zuen moduan, “inork ez zian esan bizitza erraza zenik!” Hala zatekeen (iraganaldi probablea) eta hala dateke (orainaldi probablea). Ba al dago etorkizun probablerik?

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarra aldizkaria

HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu
ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Alderdiak alderdi, iritziak iritzi, halako batean,
zure ikusmoduarearekin urrunetik ere bat ez
datorren beste baten alde jo beharra izango
duzu, arrazoiari bere lekua eman nahi badiozu.



Dionisio Amundarain

Zeatik bai!

Abenduaren 22an, goizeko 9ak inguruan, tarte labur batean Euskadi Irratiko solasa entzuteko aukera izan dut: Jesus M^a Larrazabal eta Laura Garrido (uste dut; edonola ere, solasaldi horietan askotan agertu ohi den PPko andrea) ari ziren hikamika bizian. Estrasburgok Batasunaren kontra emandako kondena zuten solasgai. Larrazabal, beti bezala, arrazoa ahoan eta eskuan; arrazoa eskuan eta dokumentua eskuan, esan nahi dut honela diharduela Larrazabalek (buruz ari naiz): «artikulu batean hau dio lau lerrotan, bestean hau lerro eta erdian». PPkoak: «hori baino gehiago dio». Larrazabalek: «ez; dokumentuak dioena dakart». PPkoak: «ez, hori baino gehiago dio». Eta horrela behin eta berriz. Larrazabalek ez du erreakzionatu, «irakurri al duzu sekula aipatzen duzun kondena hori» galdetu behar ziolakoan nengoen. Baina galdetzea ere alferrik izanen zuen zeren «bai» erantzungo baitzion, nahiz delako dokumentu hori usaindu ere ez egin. Neure baitan, PPkoagatik, jakina: «hau umea!» Ume batzuk eta ume handi asko, arrazoirik ez dutela ikusirik ere, ez al dira jarduten: «Zeatik bai»ka?

Bai. Nik uste gure herriko arazo handi eta nagusi bati aplika geniezaiokeela antzeko jokabidea. Ez ote da, alegia, antzeko hika-mila gertatzen euskaldunok espainolisten aurrean bat egiteari dagokionez ari dugun jarduna? «Zeatik bai»; «Zehatik ez» amaigabea.

Urte asko daramatzagu borroka armatua, bai ala ez galdezka. Badirudi arazo hori, hein handian, arrazoiaren bidera etortzen hasia dela. Horretarako, hori beharrezkoa dela frogatzeko, Larrazabalek bezalako jatorrizko dokumentu idatzirik ez dugu eskuan. Bai, ordea, urte askotako eskarmentua. Duela gutxi, bai ala ez horretaz, norbaiti, ez naiz gogoratzen zeini, entzun nion: «Atomo-bomba eskura bagenu, pentsatzen ahal genuke zerbait, baina...». Jakina, ez dut barre errazik eragin nahi armaborrokan ustea izan duen hainbat jenderen bizkar; haien ustea, nik dakidala, ez zen Goliat handiaren aurrean David txikia nagusituko dela. Beste estrategia bat zuten buruan, nik uste. Dela dena, jabetu bide dira delako estrategia horrek huts egin diela. Poztekoea da arrazoa nagusitu izana.

Beste bat dut, alabaina, kaskoan gaurko honetan. Euskaldunok lortuko ote dugu «bat egitea» espainolisten aurrean?

Ondotxo dakit errazagoa dela esatea eta planteatzea burutzea baino. Baina ondotxo baino ondotxoago dakit, era berean, ezinbestekoa dugula bat egite hori, baieztapen hori nahi diren komatxo guztien artean emango bada ere.

Zer behar den? Jokoa funtsezko zer dagoen aztertu, jakin eta hura nahi izatea. «Zer nahi duk?», galdeko didak; «PNVri botoa ematea?», jarraituko duk. Ez naiz inor botoa zeini eman esateko; agian, guztiok Aralarri. Zergatik ez? Edo, behar bada, «HirurakBai»ri (Hirurak=Araba, Bizkaia, Gipuzkoa). «SeiakBai» esan ahal dezagun arte.

Botoa bati edo besteri emateak ez du esan nahi, eguneroko

bizitzan honek edo bestek zer egingo begira egon behar dudarik. Arrazoiz jokatzuz, pentsa dezagun: eguneroko bizitzan lan egiteko, zein egoera izanen dut egokiago? Zein egoera hobea: espainol inperialismo ala (modu hipotetikoan eta bere kontraesana eta guzti) euskal inperialismoa?

Kontua da, eguneroko bizitzan benetan lan egin nahi dugun ala ez. Eta zertan egin nahi dugun. Eta zein den gure xedea. Gogoratzen naiz, behin batean, IVAPn lan egiten nuela, kargudun batek (kargudunak gehienetan ez dira burutsuenak izaten, ezta arrazoa gehiegi erabiltzen dutenak ere) zorrotz eta bipil bota zidan: «Zuk IVAPren ona bilatu behar duzu». Jakina, harentzat giza eta mundu-balio guztietan baliotsuena, bakarra ez esatearren, IVAP zen. Esan nahi dut, alegia, alderdiak alderdi, iritziak iritzi, halako batean, zure ikusmoduarearekin urrunetik ere bat ez datorren beste baten alde jo beharra izango duzula, arrazoiari bere lekua eman nahi badiozu. Bestela, une zehatz batean zureariitsu-itsuan loturik jokatu nahi baduzu, eguneroko zureari saldukeria egingo diozu; eguneroko zurearentzat okerragoa den egoera baten alde ariko zara jokatzan. Jakina, ezin esan, nik bederen, hori arrazoizko bidea denik. Agian, ordea, arrazoiarena gainditua duen postmodernismoa da erroa eta xedea? Nirea bederen ez doa hortik.

Bukatzeko, Larrazabalen solaskidearen «Zeatik bai»ren aurrean, arrazoa nekatzeari, arrazoa erabiltzeari eman nahi nioke. Halatan, lehenago esan dudana haritik, barruan izan lezakeen kontraesana eta guzti, arrazoizkoagoa jotzen dut esatea: espainol inperialismoa baino nahiago euskal inperialismoa. Azken honen baitan handiagoa egokiera eguneroko lanerako. Buruan eta jokabidean egunerokorik ez duenarentzat astakeria eta zentzugabekeria dateke esandako hori. Nik, ordea, badut egunerokoa: euskalduna izango den herria nahi dut, pobrerik izango ez duen herria nahi dut, ez diruz, ez herri-kulturaz, ez kultura orokorraz pobrerik izango ez duen herria nahi dut, ustezko goikoek egin edo eman dezaten zain egon gabe, behetik gora herri osoa askatasun bila abian jarriko duen herria nahi dut.

Nirea ez da mugatzen hauteskundeetara, baina hauteskundeak garrantzizkoak dira, ahalik eta marko egokiena –momentuz, nahi nukeena izango ez bada ere– eskuratu eta indartzeko; beti ere, eguneroko lanerako beste batek baino egokiera handiagoa emango didana eskuratu eta indartzeko. Eta, ametsetan ibili gabe, amore eman behar badut eman beharko dut puntu batean, amore emango dut. Baina eguneroko lanari eutsi nahi diot; hori izaki inportanteena: sator-lana, inurri lana. Beti ere, buruan xede handia, xede nagusia, behin betikoa, argi eta garbi dudala.

«Zeatik bai»k ez du balio. Arrazoa da balio duena. Eta arrazoiz jokatzeko. Hitz horrek esan nahi duen guztiarekin: arrazoa eta bihotza, arrazoa eta eskarmentua (jatorriko dokumentu «idatzia»), arrazoa eta eskuak, oinak, mihia, usaimena...

Ingurugiro txokotik, txoko bat zuretzat!



Jada badira 7 urte Landarlan Elkartetik zuenera gatozkizue-la aldizkariaren txoko honetatik. Goierriko ingurugiroaren alde zerbait egitearen beharraz jabetuta, aurrez landutako gaiak, hainbat Ag21 bilera foroetara eraman ditugu, bai herri mailan zein eskualdeko misioetan.

Goierritarra aldizkarian ere badira zazpi urte luze artikulak idatzi eta hausnarketarako bide izan nahi duten gogoetak helarazten. Bidean bestelako ekintzarik ere izan da, Aralarko Parke Naturalaren Patronatuen parte hartzea lortu, Aizkorri-Aratz Parke Naturala izendatzera eginiko ekarpenak, Natura 2000 sarean dagoen Oria arroako goi eremuen azterketa... Segura-Zegamari dago-kion tarte Aranzadirekin bat eginikoa. Egun, Amundarain eta Agauntza errekarrenak burutze bidean daude.

Tartean, Agauntzako lepoan Elorretako borda berreskuratzea, argazki lehiaketa eta egutegiak kaleratzea eman dira. Hauekin batera zenbait hitzaldi, mendi ibilbide ere izan ditugu, aukera, denbora

eta partaidetzak utzi duen heinean.

Talde osoaren barrenean taldetxo batek tinko dirau eta hor gure apurra eskaintzearena. Baina, noizbehinka txarra ez gogoraraztea denok egin genezakeela zerbait, neurri desberdinetako ahaleginak beti dira eskertzekoak, eta beti bezala borondatea eta jarrera txalotzen ditugu. Egun Ag21 foroak eta sentikortze gaiak pil-pilean daudela, gure ateak irekiak ditugula adieraztera gatozkizue, eta zuen partaidetzara deitzen, lan anitz eta zeharo interesgarriak aktibatu ahal ditzagun.

Jakin dezazuela inguru-

Egun Ag21 foroak eta sentikortze gaiak pil-pilean daudela, gure ateak irekiak ditugula adieraztera gatozkizue, eta zuen partaidetzara deitzen, lan anitz eta zeharo interesgarriak aktibatu ahal ditzagun.

men gaitan eta barne heziketan oro har, hazteko bide bat ere badela... proiektuak burutzen ikasi eta lan taldearen babesean sendotuz. Gogoratu elkartearen xedean, *"jasangarritasunaren lemapen, ingurumen eta bizi kalitatearen alde egitea"* dugula helburu *"goierritarren kontzientziazio maila suspertu"* eta *"biztanlegoa ingurumen gaitan hornitu, oinarritzko irizpideak eskainiz"*.

Badakizue, modu batera edo bestera parte hartu nahi baduzue, Goimen Elkarteko telefonoan izango gaituzue (943-161244). Hemendik gure gonbitea.

Landarlandik burutzea ikusten diren udaberrirako ekintzak:

- ✓ **Hitzaldia, Geologia astea:** Martxoaren 4tik 14ra, hiru hitzaldi Beasaingo Usurbe aretoan.
- ✓ **Erakusketa, "Kantauri"** Itsasoa Euskal Natura Elkartearena, Martxoaren 26tik apirilaren 23 arte, Oiangu Bizirik-ekin elkarlanean. Ordiziako Delikatuz aretoan.
- ✓ **Ibilaldia:** Itsasondotik barrena, Murumendira. Herritik abiatuta.
- ✓ **Oharra:** Etorri nahi duenarentzat: hurrengo bilera urtarrikak 16an, 10:00etan Goimenen.

JAKIN BEHARREKOAK

FSC ziurtagiriak altzariak egiteko erabili den egurraren kudeaketa ekologikoa ziurtatzen du. Bestalde, EMAS eta ISO14001 ziurtagiriekin produktuen ekoizpenak ingurugiroan ahal den eragin txikiena duela adierazten dute.

Nekazaritza ekologikoa-ren gorakada. Murcian ustiapen mota honetako lur azalera % 60 igo da 2009 urtean aurreko urtearekin alderatuta, Madriden %64. Almeria da lur gehien lantzen duena era honetan, eskualdeko % 21 azalera du.

Ingurugiro Hezkuntzak gizabanakoei eta taldeei honakoa lortzea nahi du:

- ✗ Ingurugiroaz eta horri loturiko arazoez jabetzea
- ✗ Inguruarekiko ditugun erantzunkizunak ulertze-ko aukera ematen diguten ezaguerak eskuratzeta.
- ✗ Baliabideak erabili eta kudeatzeko sentimenduak zein baloreak garrantzea; hobetzen eta babesten partehartzea.
- ✗ Ingurugiro arazoak konpontzeko behar diren gaitasunak lortzea.
- ✗ Gaiarekiko aplikatzen diren neurriak eta programak ebaluatzea, zenbait faktoreen arabera (ekologikoak, ekonomikoak, sozialak, hezkuntza,...).
- ✗ Neurri horien aplikazioa bermatzeko duten erantzunkizuna sustatzea.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albistean bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Denetik (XXX)

Maizpide euskaltegia

Laranja eta mandarina bezalako frutak merkatu egingo direla?

Krisia dela-eta, beharbada, normalizat jo beharko dugu “jene-roa” merkatzea. Kontua da goikoa bezalako esaldiak ere normalizat jotzen ditugula... eta ez direla oso txukunak! Badugu aukera egokiagorik:

- ✓ Hainbat fruta merkatu egingo da, **besteak beste**, laranja eta mandarina (*egokia*)
- ✓ Hainbat fruta merkatu egingo da, **esaterako**, laranja eta mandarina (*egokia*)
- ✓ Hainbat fruta merkatu egingo da, **bala nola**, laranja eta mandarina (*egokia*)
- ✗ Laranja eta mandarina **bezalako** frutak merkatu egingo dira (*desegokia*)

Era berean, “bezalako” hori modu desegokian erabiliko dugu, -T(Z)EA bukaera tarteko bada:

- ✗ Aparrik gabeko garagardoa edatea ezkontzara ogitartekoa eramatea **bezalakoa** da (*desegokia*)
- ✓ Aparrik gabeko garagardoa edatea ezkontzara ogitartekoa eramatea **bezala** da (*egokia*)

Denda

Hitz hau marrarekin edo bereizita idazten ahalegindu beharko dugu aurrerantzean, Euskaltzaindiak halaxe baitu erabakia.

- ✗ Lazkaoko Gerriko **liburudendan** erosi nuen Karmenek gomendatutako liburua (*desegokia*)
- ✓ Lazkaoko Gerriko **liburu dendan** erosi nuen Karmenek gomendatutako liburua (*egokia*)
- ✓ Lazkaoko Gerriko **liburu-dendan** erosi nuen Karmenek gomendatutako liburua (*egokia*)
- ✗ **Gozodendetara** bainbat “txango” egiten dituzte haurrek zein gaztetxoek (*desegokia*)
- ✓ **Gozo dendetara** bainbat “txango” egiten dituzte haurrek zein gaztetxoek (*egokia*)
- ✓ **Gozo-dendetara** bainbat “txango” egiten dituzte haurrek zein gaztetxoek (*egokia*)

Probatu / frogatu

Kontuz, askotan nahastu egiten ditugu-eta! Lehenak bi esanahi ditu (bata, edariak dastatzea; bestea, indarrak neurtzea); bigarrenak, berriz, zerbait egia ala gezurra den baieztatzearekin du lotura!

- ✗ Atariko **Frogan** galdera guztiei eman zien erantzun egokia azterketari ordiziarrek (*desegokia*)
- ✓ Atariko **Proban** galdera guztiei eman zien erantzun egokia azterketari ordiziarrek (*egokia*)
- ✗ Arabako Errioxako ardoa **frogatzeko** aukera izan genuen Labastidan (*desegokia*)
- ✓ Arabako Errioxako ardoa **probatzeko** (edo dastatzeko) aukera izan genuen Labastidan (*egokia*)
- ✗ Inolako **probarik gabe**, kartzela zigorra ezarri zioten Egunkaria auziko bainbati (*desegokia*)
- ✓ Inolako **frogarik gabe**, kartzela zigorra ezarri zioten Egunkaria auziko bainbati (*egokia*)

Munduko gozo denda gehienetan hi baino ezagunagoa nauk!

Ixilik, txotxolo! Hi bezalako txepelak txapel azpian sartzen ditiat! URTE BERRI ON, Goierri!



BIZARZURI eta OLENTZERO... nor baino nor!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Sebastian Gontzalez txapelduna izango ote da Astigarragan urtarrilean 2009ko mama gozoa probatzen lehena?
2. Najeran altzari denda ugari zegoen, Pakita, baina inork ez din euskaraz hitz egiten!
3. Irujo bezalako pelotari gutxi ikusi ditiagu, Anjel!
4. Aitona bezalakoa da Martintxo: ona, baina egoskorra!

OHARRA: denak zuzenak, alajaina!



kutxa



Josu Agirre



“Geroz eta zailtasun handiagoak ditu eta izango ditu ikasketarik ez duenak”

Abenduan eta urtarilean Euskal Herriko unibertsitate desberdinak infomazio jardunaldiak egiten ari dira Txindoki-Alkartasuna institutuan. Helburua unibertsitatearen eta etorkizuneko unibertsitate-ikasleen arteko lehen harremana bidaratzea da. Hau dela eta Josu Agirre Txindoki-Alkartasuna institutuko zuzendariarengana jo dugu, unibertsitaterako jauzia eman beharrean dauden ikasleek izan ditzaketen hainbat zalantzei argibidea emateko asmoarekin.

Gazte bati bere unibertsitateko ikasketak aukeratzeko garaia iritsi zaio. Karrera bat aukeratzeko garaian zer hartu behar da kontuan?

Gustatzen zaizkion ikasketak; ongi begiratu zein ikasgai osatzen dituzten ikasketa horiek. Gustatzen zaizun horretan izan zaitez saiatua.

Gazteek garbi izaten al dute zer ikasi nahi duten?

Denetik dago. Gehienek hasieran ez oso garbi, baina denborarekin norberak bere ibilbidea aukeratu behar du. Azkenik, gus-tuko duena, posible badu, ikas dezala.

Garbi ez duenari, zer gomendatzen diozue?

Lehenik, zer duen gustukoan adieraztea; ondoren, dituen auke-ren aurrean hautaketa egin beharko du.

Lanbide Heziketa ere hor dago.

Zalantzarik ez; gainera, oso aukera egokia da ikasle askoren-tzat.

Gazteek zeri begiratzen diote gehien?

Irizpide ezberdinak izaten dituzte kontuan: zer gustatzen zaien, zerk emango dizkien aukerarik hoberenak lan mundurako, eta non ikas litekeen eurek hautatutakoa.

Zein motatako karrerak aukeratzen dituzte?

Denetik, oso aukera anitza egiten dute.

Zein karrera dago modan?

Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakaslea, ingeniartzak, bio-osa-sun alorrekoak, enpresa munduarekin zerikusia dutenak,...

Zein da etorkizun ziurreneko karrera?

Ez dago, soilik, ikasten den karreraren baitan. Horrez gain, era-gin handia dute ikasleen formazioak eta gaitasun ezberdinek.

Eta gutxienekoa?

Ezer ez ikastea. Geroz eta zailtasun handiagoak ditu eta izango ditu ikasketarik ez duenak.

Nahi den karrerarik aukeratzeko arazorik ba al dago?

Numeros Claususik ba al dago?

Bai horixe. Karrera askotan plazak mugaturik daude eta ikasle-ak batxilergoan eta hautaprobak lortutako noten arabera egin-go beharko du aukera.

Eskatzen diren batz besteko notak gero eta handiagoak al dira?

Ez. Eskakeren arabera, aldakorrak izan ohi dira.

Bolonia indarrean sartu da edo sartzen ari da poliki-poli-ki. Zein onura ekarriko dizkio ikasleari?

Ikasle bakoitzak bere ibilbidea zehazteko aukera hobeak izan-go ditu. Oro har, malgutasun handiagoa dute gradu (titulu) berriek, praktikoagoak dira, enpresa munduarekin lotuagoak eta, Europa mailan, mugikortasuna errazten dute.

Eta zein kalte?

Agian, gradu titulua lortu ondoren masterrak egin beharko dire-nez, oraingo ikasketak baino garestiagoak izango dira.

Juan Ignazio
Etxeberria



35 urte sagardogintzan

Sagardo denboraldia hasi berria da. Goierriko sagardotegiek urteko sagardo berria eskaintzen ari dira. Legorretako Aulia sagardotegiko Juan Ignazio Etxeberriak 35 urte daramatza lan honetan. Iaz, Donostiako Sagardo Egunean, sagardogileen omenaldia jaso zuen.



“Gipuzkoako kupelik handiena Oiangun omen zegoen”

Nondik datorkizu sagardo zaletasuna?

Beti izan dut grina sagardotegira joateko. Hernani aldera joaten ginen. Igeltseritzan lan egiten nuen eta nire oporrak, astebetekoa izaten zen, sagardoa egiteko.

Sagardo girorik ba al zen?

Guk beti egin izan dugu etxean.

Sagardotegirik ba al zen inguruan?

Ikaztegietan bazen. Gainontzekoak geroago jarritakoak dira. Hemen ere ari da zabaltzen. Baina lehen-lehen, behean ere izango ziren, sagardotegiak, baina hemen ere zaharrak daude sagardotegiak. Ezkioko Igartubeiti hor dago. Hori Astigarragan eduki balute honezkero jauregi egin zuten. Horrelakorik ez daukate han.

Sagardoa aspaldikoa da.

Igartubeitin, lehenengo dolarea jarri eta gero egin zuten etxea. Ni mutikoa nintzela, Gipuzkoako kupelik handiena ere hemen egon behar zuen, Oiangun. Sagastirik handiena ere Oiangukoa zela esaten zuten.

sagardo negozioa jarri zuen martxan, etxean bertan, Aulian. Familiaren laguntza izan du. Ikulua egokitu eta Asturiastik ekarritako gaztain egurrezko kupelak jarri zituen. Gaur egun, guztira, 18 kupela ditu. “Beste laguntzaile bat ere izan nuen, Usurbilgo Mai Onakoa. Usurbildar horren bidez ekarri nituen kupelak. Zorte ona izan dut oso onak atera dira eta”, gaineratu du.

Txotx denboraldia San Sebastian inguruan irekitzen da ofizialki, baina Legorretan, urtea bukatu baino lehen hasten dira sagardo berria eskaintzen. Santa Lutzi egunean ireki eta maiatza bukaeran ixten du. “Halaxe hasi ginen eta hala jarraitzen dugu”, esan digu Etxeberriak.

Sagardotegia jendeari irekita sei hilabetez izaten badute ere, gainerako hilabeteetan ere ez dute lan faltarik izaten. “Botilak garbitu, kupelak garbitu... lana gogotik izaten da. Hori bai, lasaiagoa izaten da. Iluntzetan ere libre”.

Lan lotua bai, baina gustuko lekuan aldaparik ez dio esaera zaharrak eta horixe gertatzen zaio legorretarrari. Gozatu egiten du bere lanbidearekin. “Ni gustura ibiltzen naiz. Negozio-negozio baka-rrik hartuta ez da nahikoa, gustatu egin behar da”, dio.

Sagardoaren prozesu osoa

etxean egiten dute, sagarretik bertatik hasita. Mila bat sagar-rondo dituzte. “Sagar biltzen keitzen dira gehienak gure etxean. Zakua betetzeko aritu egin behar da”. Hori bai, hainbeste litro sagardo egiteko gehiago ere behar izaten dute. “Ia Goierri osoko erabiltzen ditut. Mutiloa, Ezkio, Zaldibia, Ordizia... inguru horretatik asko ekartzen dut. Gabiriatik ere bai bakarren bat edo beste. Hemen badago sagarra. Iaz (2008) izan zen nahikoa, aurten (2009) ez da izan”. Sagar urte kaskarra izan denez, Normandiatik ekarri du sagarrik gehiena, “Galiziatik ere bai. Iaz hemengoarekin nahikoa izan zen. 15.000 kilo pasa kanpora bidali nituen, neronek sobre nituen eta”.

Aldaketa ugari

Garaia asko aldatu dira eta sagardotegiak ere bai. Poliki-poliki garai berrietara egokitu-tuz joan da. Adibide batzuk jarri dizkigu Auliakoak. Prentsa adibidez: “lehenengo prentsarekin, mugitu eta zapaldu egin behar zen eten-gabe. Orain, automatiko honekin beriz, bost orduan berak egiten du dena. Bukatutakoan berak abisatzen du. Ikutu beharrik ez dago. Lan asko aurreratzen da”.

Sagardotegien filosofia bera ere aldatu egin da.

Sagardoa probatu eta botilan, zein kupeletako sagardoa nahi zen aukeratzea izaten zen sagardotegien funtzioa. Probaketa horretarako, norberak bere janaria eramaten zuen. “Otorduak ematen, oker ez banago, Saizar hasiko zen. Guk sagardotegia irekitzerako, txiritik hasita zegoen. Sagardoa saltzea izaten zen helburua. Basoak ere txikiak izaten ziren. Kupel bakoitzean, trago bakoitzeko marka jartzen zen. Hartu ahala kobratzen zen. Sarrera kobratzen hastea, geroagokoa da. Gehienez, sagardogileak berak zerbitzen zuen. Txotx! esan beharrik ez zen izaten. Gerogokoak dira horiek”, dio Etxeberriak. “Lehen bazter batean egoten ziren kupelak. Hau ere, ikulua zen. Gaur egun beste estilo bat”, gaineratu du.

Txotx!

Txotx! oihua berriagoa bada ere, aurretik ‘Mojón!’ esaten zen sagardogileak kupela ireki behar zuenean. Horren jatorria azaldu digu Etxeberriak: “orduak norberak eramaten zuen jana eta bakailaoa eramaten zen, haragia ere bai... jeneralean kazuelakoa eramaten zen, bakailaoa batez ere. ‘Mojón’ hortik etorriko da. ‘Mojón’ esandakoan, denak sagardoa edatera joan behar izaten

Sagardotegian bertan geneukan hitzordua jarria Juan Ignazio Etxeberriarekin. Kupela garbitzen harrapatu dugu langile bat, kupelaren barruan sartuta. “Lehenengo egindako sagardoa botilatan sartu dugu kupela garbitzen ari da”, zehaztu digu legorretarrak.

Duela 35 urte bere ametsa bete zuen Juan Ignazio Etxeberria legorretarrak: sagardogile profesionala izatea. Etxean eta lagunartean sagardoa egitetik, kopuru handietan sagardoa egin eta

ziren, bestela han gelditzen zenak jan egiten zuten eta. Hortik uste dut datorrela 'mojon' hitzarena, orain txotx esaten da. Txotx berria da".

Gaur egun Txotx! oihua entzun eta txiriaren ardura-dunaren atzetik joaten gara, jendearentzat itxita dagoen kupela irekiko duenaren seinale baita. Ilaran bata bestearen atzetik, txanda noiz iritsiko zain egoten da jendea. Astean zehar lasai ibiltzen dira. Astebukaerak ezberdinak izaten dira, Etxeberriak esan digunez. "Astebukaerak izaten dira okerrenak. Gazte jendea etortzen da. Etorri oso ondo egiten dira baina gero haizetu egiten dira. Normalean, jendea ondo ibiltzen da. Astean zehar lasai ibili daiteke. Konfidantzazkoa ez bada, kanpoko autobusik ez dugu hartzen. Bertako jendearekin nahikoa daukagu".

Dena den, orain arte, jendea autoetan etortzen bazen ere, gaur egun, alkoholemia eta gida baimeneko puntuak galdu daitezkeela eta, jendea trenez joaten omen da Auliara, tren geltokia gertu baitu. "Guk orain gainera, suerte handia daukagu. Trenbidea nola daukagun, gazte jendea prozesioan bezala etortzen da. Eta trenak ez duenez itxotzen, denak presaka joaten dira, eta hustu egiten da sagardotegia. Alkoholemiak asko eragin du. Jende asko ibiltzen da trenetan, gero eta gehiago. 11.30ak inguru horretan izaten da azkeneko trena. 8ak aldera


Material ezberdineko kupelak

Gaztain egurrezko kupelak dituzu sagardotegian. Beste material batzuetakoak ere erabiltzen dira gaur egun. Aldatzeko asmorik ba al daukazu?

Honetan hasteko edade txarra daukat. Atzetik bakarren bat etorri zergo, orduan hasi beharko dugu. Erreleboaren zain dago. Ni ere pixka bat lasaitu... Itxoin egin beharko dugu pixka bat, ea norbait animatzen den. Astebukaeretan lana egin behar da, lotua da. Botilen banaketa ere gehiena guk egiten dugu eta eman egin behar da, astebukaeran batere geldituta ere. Gazteak ez du hori nahi.

Ezberdintasunik ba al dago kupel mota batetik bestera?

Garbitzeko bai. Inoxidablezkoa berehala garbitzen da eta zurezkoak bonba behar du ondo garbitzeko. Bi edo hiru ordu behar dira garbitzeko. Temperatura mantentzeko ere hobea dela esaten dute. Hemen ez dago oraindik ohiturarik baina Asturiasen poliesterrekoak ere ikusten dira. Sagardo ona ateratzen da. Niri tokatuta dago, sagardotegi batean, egurrezkoa, poliesterra eta inoxidablezko sagardaiak probatu eta poliesterrarekin geratu ginen. Eta ez nintzen ni bakarrik. Poliesterrarekin sagardo onak ateratzen dira.



etortzen dira eta garaiz alde egiten dute. Lehen berandu hasten ginen, jendea noiz etorriko zain egoten ginen; berandu etorri eta bukatu ezin. Orain trenarekin, alde egin behar dutenez, bentajea daukagu horretan. Gaur egun ez da broma", dio Etxeberriak.

Bezeroez hizketan ari

garen honetan, krisiaren eraginik nabaritu al duten galde-tu diogu. "Aurten ondo hasi gara. Beldurra badago, baina jendea behintzat ondo dabil, aukeran iaz baino zertxobait gehiago ibiliko da orain arte. Errege eguna pasata, aste pare bat izango dira txarrak baina hori urterokoa da, ez da oraingo krisiarena bakarrik".

Sagardoa, oraindik ere berri samarra dagoen arren, "ez dauka itxura txarrik. Ondo garbitu da eta Normandiako sagarrak kolore ilun samarra ateratzen du, baina gazia dezente bidali zidaten eta kolore argi polita dauka. Oraindik berria da", dio Etxeberriak. Sagardoa puntu-puntu, otsailetik aurrera izaten omen da.

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

over Urraki
Bidaletan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**

Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79

urraki@over.es www.over.es



Jose Benito Deba, Txistorrik onenaren egilea:

“Etxean zer gustatzen den, formula hura atera behar da”

Bezeroek animatuta hasi zen Jose Benito Deba ormaiztegiarra Ordizia eta Donostiako txistorra lehiaketetara aurkezten. 2005. egin zuen estrenua Donostian, eta txapela ekarri zuen etxera. 2007. urtean bigarren egin zuen eta 2009an ere, txapela ekarri du berriz ere Ormaiztegiara. Aurten ezingo du Donostiako lehiaketan parte hartu, epaimahaiko lanak egin beharko baititu. Txistorraren sekretutxoak kontatu dizkigu.



2011n aurkeztuko abl izangoda berriz ere Jose Benito Deba bi aldiz irabazi duen Donostiako Txistorra lehiaketara.

Lehiaketarako txistorra berezia egiten al duzu?

Berdintsuak egiten ditut. Kosta egin zen formula ateratzea, baina hortik aurrera berdintsu egiten dugu. Txerrikiaren gora-beheran asko dago. Baina igualtsu egiten dugu, diferentzia handirik ez dago. Alperrik da, txapelketarako onak egin eta gero txarrak egiten badituzu. Jendeari gustatu egin behar zaio, eta epaimahaiari ere bai jakina.

Formula nola atera duzue? Proba asko egin behar izan al duzue? Txar asko egin behar izan al duzue ona ateratzeko?

Hori da ba., Galduz ikasten dela eta egia da. Gure umee txistor asko jan dute. Etxean txistor asko dastatu dugu.

Dastatzaileak etxean bertan dituzu.

Bai, hori etxean probatu behar da. Etxean zer gustatzen den, formula hura atera behar da.

Beste sekreturik ez du horrek.

Etxean dastatzaile onak dituzunaren seinale da beraz hainbeste sari irabaztea.

Bai. Proba asko egin behar dira, formula hori atera arte.

Denbora asko behar izan al duzu formula hori ateratzeko?

Txistorra egiten, joan deneko 20 bat urtean ari naiz. Hasieran ezjakina nintzen, gero hobetzen joaten zara... Gauza denak bezala. Hori praktikak egiten du. Poliki-poliki, probatu eta probatu, hau ez zait ba gustatzen... piper hautsa ere hainbeste... Pixka bat beti aldatzen joan behar, harik eta formula atera arte. Hor ez dago libururik nola egin behar den esaten duena, segimena egin behar da. Urdaia eta giharreari oreka bilatu behar zaio. Beste sekreturik ez du honek eh?

Orain, beti berdintsua egiten dut. Hor gorabehera izan daiteke, txerri haragiaren diferentzia horixe. Txerri denak ez dira berdinak izaten.

Zeintzuk dira txistorraren osagaiak?

Dena txerrikoa behar du, nik hala egiten dut behintzat. Hasieran edozein posturatan egiten genuen baina hobetzen joan behar

da. Alperrik da txekorraren haragia sartzea; txerriki hutsa behar du, ahal den onena gainera. Oreka bat bilatu behar da urdaia- ren eta giharraren artean, hori oso garrantzitsua. Oso inportantea dena, eta aurtun tokatu zaiguna, eguraldia da.

Honetan ere eguraldiak hainbestearinoko zerikusia al du?

Ikaragarria! Eguraldiak behar du, hemen ez daukaguna askotan, lehorra eta hotza. Izotza oso ona da. Iaz, Santo Tomaseko lehiaketara eramateko txistorrak alper-alperrik egin genituen. Hezetasun handiko astea tokatu zen eta bere puntua ez zuen hartu txistorrak. Hezetasuna baldin badago, dena ura dariola jartzen da eta berak daukan kalitatea asko galtzen du. Denborarekin ikasi dut hori ere. Hezetasunarekin izerdi batean jartzen dira, paretak-eta jartzen diren bezala eta berak daukan

esentzia garbitu egiten da eta zaporea ez du berdina izaten. Aurtun, oso aste ona tokatu zaigu: lehorra eta hotza. Horregatik izaten da Castilla-Leon alde hori ontzeko hobe.

Zein izaten da prozesua?

Hezurak-eta kendu txerrikiari,

xehetu, urdaia eta giharraren artean oreka lortu, eta piper hautsa eta baratxuri pixka bat nahastu. Gero, hestean sartu eta egun pare batean lehortzen utzi. Ez dago beste sekreturik.

Pikantexegoa ala xuabexegoa izan behar du.

Txistorrak xuabea behar du. Nik ahal dela behintzat, jendeari gomendatuko nioke, frijituta jatea. Egosita edo mikrouhin labean eginda ez. Hori alperrik galtzea da. Gainera txerrikiak, ondo eginda behar du. Epaimahaian egon nintzen Donostian 2006an eta bueltan makina bat bidali genituen gehixego egitera, bestela txistorrari ez baitzaio bere puntua hartzen.

Ondo eginda, eta arrautza pare batekin...

Oso ona! Atzo mendian ibili ginen eta emazteak txistor pusket bat jarri zidan arrautza pare batekin eta bueno!! Oso ona!

Egin eta zenbat denborara egoten dira jateko moduan?

Egun pare batera oso onak egoten dira. Txistorrak ez du behar

Urdaia eta giharreari oreka bilatu behar zaio. Ez dauka beste sekreturik.

txorixoak bezala, lehorra behar. Txistorrak freskoa behar du, eta ahal den xuabeena. Txistorrak xuabeak egiten ditut eta txorixoak piper-hauts gehixeagorekin. Suabea behar du txistorrak, jan eta jateko gogoa ematen duena. Epaimahaian egon nintzen eta dezente ikasi nuen.

Kontsumitzaileen artean, zer moduzko estimazioa dauka txistorrak? Txorizoa ala txistorra da estimatuagoa?

Txistorra ondo saltzen da, orain, txorixoa baino gehiago. Txistorra gero eta gehiago erosten du jendeak, ez dakit sariagatik ote den. Promozionatzen laguntzen dute lehiaketek. Jendeak esaten zidan ea zergatik ez nintzen Donostiara joaten, oso ona egiten nuela. Jendeak esanda hasi nintzen Ordiziara eta Donostiara joaten. Jendea hortaraxe bakarrik etortzen da, txistor eta txorizo bila.

Beste hestebete batzuk, odolkiak kasu, fama handia dauka. Txistorrak ba al du fama on hori? Horrelako lehiaketen bidez txistorra sustatzea lortzen al da?

Ez dakit, niri ondo etortzen zait behintzat. Txistorra eroatera kanpotik jendea etortzen da. Oso inportantea da hor egotea.

Txistorraren eta txorizoaren arteko ezberdintasuna zein da?

Hestearen loditasunean edo kalibrean dago diferentzia. Txistorretan ere kalibre asko daude, lodiagoak eta meheagoak izaten dira. Arkumearen hestea da. Naturala da.

Txorixoa fuertexegoa egiten dugu, pikante edo zapore gehixeagorekin.

Txistor batetik bestera ezberdintasun handia al dago?

Bai, izugarria. Bistarekin bakarrik ere izugarria. Donostian adibidez, 25 bat txistorra aurkezten dira, ilaran jarri eta bistarekin asko ikusten da. Batzuk, ikusiarekin bakarrik kanporatu genituen.

Ondo txikitzeak ere bere garrantzia dauka.

Bai, pusketa handirik ez da behar. Urdai pusketa bat tokatuz gero, ez da atsegina. Piper hautsak denak igualtsu dabilta, gatzarekin-eta bere neurrian etortzen dira. Horretan ez dago diferentziarik. Diferentzia, xehetuan dago, eta urdaiaren eta giharren oreka horretan. Nafarroako txerria erabiltzen dugu. Segun zer sartzen den, hori aterako da. Milagrorik ez dago.

Txistorrarentzat garairik fuertena, Santo Tomas eguna izaten al da?

Odolkiarentzat San Martin ingurua den bezala, txistorrarentzat Santo Tomas izaten da. Urte guz-

“Epaimahaian egonda ere asko ikasten da”

Urte batean, Donostian jokatzeko den Santo Tomas eguneko Euskadiko Txistorra Lehiaketa irabazten duenak, hurrengo urtean, ezin izaten du lehiaketan parte hartu. Hori bai, lehiaketa bereko epaimahaikide izateko aukera izaten du txistorgileak, berak hala nahi badu. Jose Benito Deba aukera aprobetxatu eta 2006. urtean epaimahaikide izan zen. Aurten ere, hala izateko asmoa dauka.

Donostiako epaimahaian izan zirela esan duzu.

Bai, irabazi eta hurrengo urtean ez dute parte hartzen uzten. Aurten adibidez, ezingo naiz aurkeztu eta epaimahaian egongo naiz. Asko ikasten da. Sukaldari onak egoten dira eta jende ospetsua egoten da asko ikasten da. Txistorrak ireki egiten dira eta ikusi egiten da zein osagai dituzten, nola dagoen txikituta, kalibreak eta dena. Ikasi egiten da.

Beste lehiaketaren batera aurkezten al zara?

Donostiara joateaz gain, Ordizia eta Gabirira joaten naiz. Gehiago, egon ere ez da egoten. Nafarroan egiten dira baina nafarrak bakarrik daukate joateko aukera.

tian egin behar izaten da baina aste hori eromena izaten da. Egun pare batean bere tenplera etortzen utzi behar zaio eta gu ez gaude prestatuta kilo ikaragarri egiteko. Horretarako daude industrialak. Hau harategi tradizionala da. Leku handia behar da txistorrak zintzilik edukitzeko. Gustura ari naiz. Gustua ematen du jendea gustura etortzeak.

Entzun dugunez, Cadiza ere iristen omen da zuk egindako txistorra.

Bai, hala da, hilean behin eramaten dut Sotograndera, Golf zelai ospetsu batera. Zumarragakoa da hango Mikel Landa sukaldaria. Hilean 50-100 kilo bidaltzen dugu, denboraldiaren arabera.

Aberaskiloek beraz zure txistorra jango dute.

Ni ez naiz izan, baina hango onentsuena omen da. Ni ez naiz izan baina badaukat gogoa joateko. Txistorrak eramanez joan beharko naiz.

Jendeak esaten zidan ea
zergatik ez nintzen Donostiako
lehiaketara aurkezten, oso ona
egiten nuela eta. 2005ean
lehenengo aldiz aurkeztu eta
irabazi egin nuen.




- Aroztegia
- Altzariak neurrira
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 - Antzizar auzoa - BEASAIN

Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47

www.mueblesibaiondo.com

“Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak”



OKINDEGA GARONA

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

Gerra ostea: Gosea eta miseria

Gerraren ondorio ekonomikoak

Gerriko ikerlan-bekaren 19. liburukia da Nerea Elias eta Ainara Gorostitzu ataundarrek osatutakoa. ‘Eta gerra etorri zen. 36ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan’ izenburupean, Ataunen gerra zibilaren ondorioak nola bizi izan zituzten kontatzen digute, herritarren oroitzapen biziak tartekatuz. Ondorengo lerrootan, gerraren ondorioz ezarritako errazionamenduaren xehetasunak bildu ditugu, liburutik entresaka eginez.

36ko gerrak ondorio larriak ekarri zituen Espainiako eta Hego Euskal Herriko ekonomia-erentzat. Produktzioak behera egin zuen sektore guztietan. Nekazaritzan eta abeltzaintzan, produktzioa heren bat jaitsi zen eta horrek gosea ekarri zuen. Industrian ere produktzioa heren bat jaitsi zen. Komunikazio sarrerek (trenbideek, zubiek, errepideek...), halaber, ondorio latzak jasan zituzten, horietan izan baitziren maiz gerraren helburu nagusi. Horren guztia ondorioz, per capita errentak % 30 egin zuen behera eta 1959ra arte ez zen gerra aurreko mailetara iritsi. Honi guztiari, herri eta hiriek jasan zituzten kalteak eta gerraren gastuak erantsi behar zaizkio. Hala, lagundu zioten herrialde guztiekin zor izugarria egin zuen.

Frankisko garaiko egitura ekonomikoaren azterketa

egin duten egileek (Fontana, 1986, Tusell 1985, besteak beste) defendatzen dute egoera ekonomiko kaxkarra ez zela soilik gerraren ondorio izan; horrez gain, erregimenak ez zuen plangintza ekonomikorik, eta inprobisazioak gidatu zituen neurri handi batean erabaki ekonomikoak. Gainera, Francoren erregimenak ez zuen ia merkataritza harremanik nazioarte mailan eta honek ere larriagotu egin zuen egoera ekonomikoa.

Estatu frankista berriaren ezaugarriak dira autarkia eta esku-hartze politika. Merkatuaren legeei jaramonik egin gabe, gerra osteko lehen urteetan, hainbat erabaki hartu zituzten herritarren “ongizatea” bermatzeko, baina neurri hauek ez ziren batere egokiak izan eta ezin izan zieten aurre egin goseari eta eskasiari:

“Nezesidade aundie zeon

bai, gose aundie pasau zan” (Bibiano Munduate).

“Nei bein baño geiotan eittentzien goizen eamaten non ogi puskatea, euneako bearnona, fabrikan kendu. Armarioke ala eotentzien kandaube, ta askotan eguerdin jun a adios ogipe! Eske ordun jendek amoniako (boniatoa) ta jatentzon, gozoa zan ikeragarrie ta labe-ko galeritan bero nola eotentzan ba andik. Oixe, gosek ezto beste zeaik! Ta ogiketa arrapatzen zittuenak an kalekok zien, Beasaingok neuzken nik an launek”. Sabino Auzmendi.

“Esatentzuen Lazkauko klausurako monjak izugarrizko mixerik eta gosek pasau zittuela. Tomasek inork nai ez zittunak autza bialtzen zittula ta eskerrak! Orri esker gose oi pixkat alibiau zuela”. (Felix Eskisabel).

Hasierako urte haietan, frankistek errepublikarrak egin zituzten gosearen erantzule. Erregimenak argudiatzen zuen Errepublikaren aldekoak izan ziren zonaldeak guztiz suntsituta geratu

zirela, eta suntsipen horri aurre egiteko gainerako probintzietatik laguntza jaso beharrean zirela. Ondorioz, denen egoera ekonomikoa kaltetuta suertatzen zela errepublikarren “erruz”.

Ogi beltza. Errazionamendua

Janariaren eskasia zela eta, 1939ko maiatzaren 14an, Industri eta Merkataritza Ministerioak, eskasi egoerari aurre egiteko, errazionamendua agindua plazaratu zuen. Ekainaren 28an kaleratutako dekretuan errazio bakoitzean banatuko ziren kopuruak zehazten ziren. Errazionamenduak iraun zuen bitartean aldatzen joan ziren kopuru hauek, baita beraien salneurria ere.

Gainerako herrietan beza-la, Ataunen ere errazioak ezberdinak izaten ziren sexuaren eta adinaren arabera. Emakumeek eta 70 urtetik gorakoek gizonek baino % 20 gutxiago jasotzen zuten. 14 urtetik beherakoek %40 edo %50 gutxiago.

Errazionamenduan bana-

**Errazioak ezberdinak izaten ziren
sexuaren eta adinaren arabera.**

**Emakumeek eta 70 urtetik
gorakoek gizonek baino**

% 20 gutxiago jasotzen zuten.

14 urtetik beherakoek

%40 edo %50 gutxiago.

tzen ziren jakiak jaso ahal izateko, ezinbestekoa izaten zen errazionamendu txartela izatea. Hasieran txartel hauek familia mailakoak ziren, geroa banakakoak.

Bi motatako txartelak zeuden, bata haragiarentzat eta bestea gainerako produktuentzat. Baliabide ekonomikoen arabera hiru mailatan sailkatzen ziren txartelak: lehen mailakoak, bigarren mailakoak eta hirugarren mailakoak. Kupoi bereziak zeuden lan baldintza gogorrek zituztenentzat (adibidez, meatzarientzat), gaixoentzat eta haur txikientzat.

1941ean aldaketak egon ziren errazionamendu sisteman. Aldaketa hauek jaki guztietako errazioetan gertatu ziren, baina bereziki ogian, esne hautsetan, txokolatean, gatzean eta haragian (gehienbat hirugiharra banatzen zen).

Errazionamenduko produktuak ez zirenez egunero banatzen, banaketaren maiztasuna ez zegoen alde aurretik adostua; Estatu Frankistako Zentru Neurtzaile zelakoaren baitan zegoen. Bertatik produktuak banatzeko agindua iristen zenean, bando baten bidez jakinarazten zitzairen herritarrei.

Garraio eta Hornidura Komisario Nagusiak udal bakoitzera zerrenda bat bidaltzen zuen errazionamenduko kopuruak eta hauek zein dandatan banatu behar ziren zehaztuz. Errazionamendu egunean udaletxera joan behar zuten herritarrek errazionamendu konkretu hari zegokion txartela jasotzera.

Familia bakoitzak herriko denda jakin batera joan behar zen zegoekiona erostera. Udaletik denda bakoitzari zegozkion txartelen zerrenda ematen zitzaion. Errazionamendua amaitu orduko, dendariak zerrenda hori udalera itzuli behar zuten salduta koaren kontrola eramateko.

San Gregorioko familiak Artillazpikoa edo Kaietanorenera joaten ziren:

“Autza billa jun bear genun. San Gregorion Artillazpikoa, bazeren bi, ue

ta Kaietanona, baiño gu Artillazpikoa juten giñen” (Adelita Apalategi).

Aian ere bi tokitan banatzen ziren errazionamenduko produktuak, eliza alboan zegoen taberna txikian eta Kaxetan.

Errazionamenduan banatzen zenaren kontrol zorrotza egiten bazen ere, ia denak saiatzzen ziren tranparen bat egiten. Espillako Felix eta Mikela neba-arrebak, azukre gehiago eskuratzeko, triki-mailua egin zuten bi etxe ezberdinetakoak zirela esanez:

“Ta Espillan, klaro, azukre zaleek. Ta Mikela gurea ni baiño atrebittuagoa zan da arrek esantzion “biok jun bear diauu”, “nik ez diñat gezu-

ETA GERRA ETORRI ZEN

36ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan



Nerea Elias Mujika
Ainara Gorostitzu Mujika

XIII. GERRIKO



IKERLAN-BEKA

rrik esango el”, nik seittun, “nik esango diat”, ta jun gea. Ni aurrena, “nungoa zea” “Ustatxokoa”, arrek. Baiño bestea ez tontoa izan ta beste emakuma bati galdetu dio: “Aaizan orroko neska-motil orik nungok ittunan?”, “orik Espillakok”. Urrungo eunen gue ama zana badijo jaiotetxea ta Nikasiok arrapatu do ta “aizan, lengon ie umek gezurre esantziane”, da gue ama zanak “ba, geuzr bat esanakatik azukrea eaman ziñeñ etxea”. (Felix Eskisabel).

Ogiarekin ere gauza bera gertatzen zen, hau da, familia bakoitzak okin konkretu bati hartu behar zion errazionamenduan banatzen zen ogi beltza.

Gerra ondorenean lau okin zeuden San Martinen, Errotazaharrekoa, Artzubikoa, Barriolanekoa eta Julian Erauskin. Azken honi bere iloba Joxek laguntzen zion ogi partiketan. Okinek ere ezin zioten ogirik eman beraien zerrendan agertzen ez zenari:

“Ta Gartzako andrea zeon an ta ogie eskau zin. Ogie banon nik baiño ari emateko ez. Enion serbittu. Geo andio 2-3 urtea motil gaztek, keiza garaien, etorri gea Lixarbu aldeti buelta einda. Gartzanen, etxen ondon, lau keiza bost illaran dotore. Ala permisoa eskatu diu ta esantzien “zuek illo ta Sasteikoa zu ez! Zuk nei etziazun ogik eman ta zutzako



Zaintzapean zeuden jakiak

Ondorengo zerrendan zaintzapean zeuden jakiak zehazten dira:

- Zerealak: garia, oloa, garagarra, zekalea, artoa, alpistea eta artaxehea.
- Barazkiak: Algarrobak, ilarrak, dilistak, garbantzuak, babak eta babarrunak.
- Pentsuak: Alpapa, erremolatxa...
- Olio
- Arroza
- Ganadua
- Xaboia
- Esne hautsa eta esne kondentsatua
- Ogi
- Patatak
- Pureak
- Zoparako pasta
- Gazta eta behi gurina
- Hirugiharra
- Bakailaoa
- Kafea
- Txokolata
- Azukrea

eztau keizaik". (Joxe Erauskin).

Ogiaz gain, hainbat janari banatzen zen txartelarekin: dilistak, babarrunak, azukrea, kafea, tabakoa, etab. Hala ere, 40. hamarkadako lehen urte haiek bizi izan zituzten gehienen gogoia ogi beltza nabarmentzekoa da:

"Ogi gorri bat ematen-tzuen, masa gor-gorra ta zenek jango ue goortutakon! Jan ein bear, besterik etzan izaten da". (Joxe Agirre).

"Ogiere falta, ogiere razio-namendun ta txarra, nik oain Piliri esaten diot hamaika aldiz, "integrala? Ez, ez, ez, lenaure naikoa janda natxon, ez diñat nail". (Felix Eskisabel).

"Ogiere beltza, bollo batzuk ta bel-beltzak. Ake jan eitten giñuzen, txarra baiño... besteik nola etzeon". (Bibiana Munduate).

Oso zaila zen ogi txuria lortzea. Errotak itxita zeuden eta herritarrek ezkutuan joan behar izaten zuten artoa edo garia ehotzera.

"Errotak itxita eotentzien ordun, ez iotzeko artoik eta garik. Ordun gosea pasau bear izatentzan". (Bibiana Munduate).

"Errotatane kriston liok izatentzien. Guardia zibillek ogiriñe iotzen arrapau ezkeo

prezintau ittentzuen, komerik izatentzien! Or Joxeantonio zan, errotari zaarra emen-goia, uere txintxoia zan baiño arrire prezintatu zien bi-iru aldiz. Geo San Gregorioko errota jute giñen, Aieare bai, Lazkauare bai". (Felix Eskisabel).

Errota bat ixten zenean, beste bat bilatzen saiatzen ziren. San Gregorion bazegoen errota bat, kokapen aldetik nahiko ezkutuan zegoenez, itxi gabe zegoena:

"Errotak prezintautaren geienak, baiño gelditzentzien batzuk. San Gregorion bazeon bat, ue prezintaube zeon, izkutun zeon ue. Joan Zaarra esaten giñun ango errotariri". (Joxe Mari Apalategi).

Ezkutu xamarrean baze-goan ere ez ziren egun argiz joaten bertara, gauaren iluntasuna baliatzen zuten:

"Gauen jutentzien. Andik ekarri iriñe ta amak etxen eittentzon ekonomikan, leba-durekin ein masea ta ogie". (Joxe Mari Apalategi).

Ogia ez zen gainerako elikagaiak eskuratzeko, dendetara joan behar izaten zuten ataundarrek. Janarien premian bazeuden, goizeko lehen orduetatik egoten ziren ilaran; izan ere, ilaran lehen-dabiziko zegoenak besteak baino aukera handiagoa iza-

ten zuen kalitate oneko elika-gaia lortzeko. Errazionamen-duko janariak lortzeko lerroetan, gehienez emakumeak edo haurrak egoten ziren:

"Ordun, goizeko laueta-ko karnizeria junda eotentzien kolan". (Joxe Erauskin).

Errazionamenduko janariak lortzeko, txartelak eta baleak behar izaten ziren. Luzio Dorronsoro harakinak txekorra hil ostean, balkoitik botatzen omen zituen seboa erakuratzeko baleak:

"Txekorra iltzentzonen, Luziok eittentzon, goizeko sei-ko bostetan atatzentzan balkoia ta burrub botatzen-tziittun balek, eskutarea. Ta bakoitzek libra bat sebo, bale ue arrapatzentzonak. Arrapatzen etzona beize atxeia bueltan, an kolan eoan-da, arren balkoipen eonda, gorra zan oi!". (Felix Eskisabel).

Txartelarekin banatzen ziren errazioak oso eskasak eta kalitate gutxiak izaten ziren, eta orokorrean ez ziren iristen pertsona baten oinarritzko dieta osatzera:

"Razionamendue etor-tzentzanen poliki, eun batzu-tako, beste gainatikon, gai-xoa, etzeon eze". (Teresa Agirre).

"Lentejake txillar-txillarrak, dana apartau in bear.

Gauza txar asko ematen-tziuen razionamenduan". (Isidora Eskisabel).

Hala eta guztiz ere, beste toki batzuetan baino gose gutxiago pasatu zuten Ataunen. Nagusiki baserriz osatutako herria izanik, nahi zen guztia lortu ez arren, oinarritzko lehengaiak lortzeko zailtasun gehiegirik ez zen izan. Kalean bizi zirenek, estutasun handiagoak pasatu zituzten arren, baserrietan bizi ziren senitarteko edo lagunen bidez lortzen zuten jatekoa. Kasu hauetan harreman sare-ek edo elkartasun sareek izu-garrizko garrantzia izan zuten eguneroko biziraupenean:

"Leengusuk zien gue amana, San Gregoriokok. Ta eana bastante jutegiñen. Batzutan babarruna, bestea-tzutan artoiriñe, launtzeko. Balentina zen ama". (Sabino Auzmendi).

Baserrietan ere, baserri-aren eta familiaren tamainaren arabera ezberdintasunak egoten ziren etxe batetik bestera. Kasu horietan ere elkar lagun-tzeko prest agertu ziren:

"Gu familiare aundie. Gu aitte ilda hamaika laun geldi-ttu giñen. Ta eskerrak gue ama zanak baserri ona zuen ta andik ekartzentzuden etxen falta zenen". (Felix Eskisabel).



Jon Ander Intxausti eta
Peio Olaberria mutiloarrak

Lokatzetako txirrindulariak

Ez da erraza Mutiloa bezalako herri txiki batean aldi berean goi mailako bi txirrindulari ateratzea. Baina oraingoan horrelaxe gertatu da, jubenil mailan 17 urteko Jon Ander Intxausti eta kadete mailan 15 urteko Peio Olaberria ziklo kros denboraldiko protagonista bihurtu dira.



*Jon Ander, urtarrilaren 10ean, Espainiako txapelketa irabazi zuen unean.
Arg.: Angel Elortza.*

Jon Ander Intxausti



17 urte, jubenila Caja Rural taldean.

Aurtengo garaipenak: Muskiz, Karrantza, Ermua, Asteasu (nazioartekoa), Alcobendas, Valentzia (nazioartekoa), Iraeta (Euskadiko txapelketa), Ormaiztegi eta Laredo (Espainiako txapelketa).

Karrera bat: Asteasu.

Txirrindulari bat: Sven Nys.

Beste kirol bat: Pilota.

Zaletasun bat: Zinea.

Plater bat: Oilaskoa.

Amets bat: Ziklo krosetik bizitzea.

Peio Olaberria



15 urte, kadetea Ampo taldean.

Aurtengo garaipenak: Karrantza, Orio, Astarria, Aizarnazabal (Gipuzkoako txapelketa), Alcobendas, Laudio eta Elorrio. Bigaren postua Euskadiko eta Espainiako txapelketetan.

Karrera bat: Karrantza.

Txirrindulari bat: Niels Albert.

Beste kirol bat: Kotxeak.

Zaletasun bat: Mendira joatea.

Plater bat: Lentejak.

Amets bat: Ziklo krosetik bizitzea.

Txirrindu ganean ibiltzeko eguraldirik egokiena ez dagoen arratsalde batean egin dugu zita Mutiloan. Jon Ander Intxausti zain dugu eta Peio Olaberria oraindik entrenatzen ari da, euri-pean. Lokatz kontuez hasi gara Jon Anderrekin, "lokatzetan hobeto pasatzen da baina lehorra hobea da. Lokatzarekin hoztu egiten da, hankak bustita... Baina gehiago gozatzen da. Lehorrean, denbora guztian azkar joan beharra daukazu eta gehiago nekatzen da. Lokatzetan, denetik egiteko aukera daukazu".

Entrenatu, ordea, ez dute lokatzetan egiten, errepidean baizik. Inguruan, nahi adina mendi eta zelai dute, "baina, pinu gehiegi bizikletan ibiltzeko" argitu du Jon Anderrek. Edozein zelaietan, berriz, ezin dira ibili. "Lokatza egiten dela eta jabeak sutan jartzen dira. Etxekoek ere ez dute uzten!"

Aurtengo neguan lokatza ez ezik elurra ere protagonista izan da. "Eskuak hasi aurretik izoztu egiten dira, ezin izaten da frenatu... Horretarako prestatu beharra dugu, ziklo krosa neguan izaten da eta", dio Jon Anderrek, "hala ere Peiok hobeto daki, karrera bat elurretan korritzea tokatu baitzaio. Horrela ari garela iritsi da Peio entrenatzetik eta elkarriketari ekin diogu.

Jon Anderrek kontatu digunez, karreraren bat elurretan egin duzu.

Peio: Laudion izan zen. Ez zegoen elur askorik. Baina hotza bai, ikaragarria. Jendea negarrez iristen zen helmugara.

Mutiloan zer gertatzen da horrelako bi txirrindulari edukitzeko?

Jon Ander: Lana, entrenatu eta zortea. Horrela tokatu da.

Zer dio jendeak?

Jon Ander: Jendea harritzen da bai, horrelako herri txiki batek bi txirrindulari nola atera garen.

Eta herritarrek?

Peio: Orain ezer handirik ez.

Jon Ander: Lehenago asko, irabazten hasi garenean ixilik daude. Adarra jotzen ibiltzen ziren beti.

Aurten denak ixildu dituzue beraz.

Jon Ander: Momentuz bai. Aurten espero dugu horrela segitzea, baina zaila da.

Elkarrekin entrenatzen al zarete?

Jon Ander: Ez dugu ia inoiz topo egiten. Eskola berandu bukatzen du Peiok eta ez dugu topo egiten. 5etan ateratzen da. 6etan iluntzen du eta ez daukagu astirik entrenatzeko. Elkarrekin gutxi.

Eta entrenamentuak errepidean.

Peio: Bai hala da, astean behin igo zaitezke mendira, pixka bat ohitzeko, baina bestela errepidean ibiltzen gara. Ahal dela lauan ibiltzen gara.

Jon Ander: Amezketak aldera beti, lauaren bila, hemen aldapa besterik ez dago eta. Denbora eta pultsazioak kontrolatzen ditugu entrenamenduetan.

Bestela zaintzen zarete?

Jon Ander: Elikaduran, zer den hobea jatea esaten digute.

Aurten, ziklo kros denboraldi ederra ari zarete burutzen.

Jon Ander: Uste baino hobea.

Aurreko urtetik hona, zerbait aldatu al da?

Peio: Jon Anderrentzat bai.

Jon Ander: Belgikara joan naiz prestatzera. Euskadiko Federazioak aukera eman zigun Belgikara joateko eta han entrenatutakoa nabaritzen da hemen. Ikaragarri nabaritzen da. Han oso azkar ibiltzen dira. Han ohituta, hemen errazago ibiltzen da.

Noiz izan zara Belgikan?

Jon Ander: Irailaren 11tik urriaren 11ra eta azaroan beste hiru aste egon nintzen. Prestatzaile bat jarri ziguten eta bere etxean egon ginen.

Etorri eta irabazi. Ondo ikasita etorri zara orduan.

Jon Ander: Hala dirudi.

Peio ez da Belgikara joan baina irabazten ari da. Zeuk erakusten al diozu Belgikako lezioa?

Jon Ander: Askorik ez diot erakutsi, bera bakarrik ari da. Zerbat esaten diot, baina beste dena berak egiten du.

Belgikatik hona alde handia dago beraz ziklo krosetan.

Jon Ander: Ikaragarri nabaritzen da hemen ibili ala han ibili. Jende askok parte hartzen du. Ikustera joaten den jendeak ere ez dauka zerikusirik. Beste mundu bat da. Hemen futbola bezala, han ziklo krosa.

Gaur egun zenbat zabilzate ziklo krosetan? Garai batean, beharakada izan zuen, txirrindulari gutxi, probak kenduz...

Peio: Orain dela 4-5 urte ia ez zen inor ibiltzen. Gure kategorian, kadeteetan, 40-50 bat gabiltza Euskal Herrian. Jubeniletan ere hala moduz.

Jon Ander: Eliteetan ere ondo ibiltzen direnak badaude. Hala ere, kanpora joaten direnean ez dute ezer ere egiten, beti doblatu egiten dituzte baina... Orain badago jendea.

Ziklo krosa berpizten hasi da beraz.

Jon Ander: Orain jendea animatzen ari da, Goierriin behintzat geroz eta gehiago. Proba batzuk ere kendu dituzte diruagatik, baina bestela, lehen baino hobeto; ez dago konparatzerik lehen eta orain. Ia-ia, inork ez korritzeraino iritsi ginen, baina orain buelta hartu du. Errepidean talderik gabe zegoen jendea ziklo krosetan hasi zen eta momentu honetan ondo gaude.

Noiz bukatzen duzue denboraldia?

Peio: Urtarrilaren 24an bukatuko dut nik.

Jon Ander: Munduko txapelketara joaten baldin banaiz, beranduago, bestela, urtarrilaren 30ean bukatuko nuke denboraldia. Gero, errepidea.

Peio: Otsailean hasiko da errepidekoa.

Txip aldaketa egin behar izaten al da?

Jon Ander: Urtarrilean bizikleta utzi eta leporaino egongo gara ordurako. Errepidean hasi beharko gara pixkanaka. Denboraldi luzeagoa izaten da, 7 bat hilabete. Denbora badaukagu ondo jarri eta ondo ibiltzen hasteko.

Aukeratzekotan zein aukeratu zenukete, ziklo krosa ala

Txirrindu desberdina

Ziklokroseto txirrinduak errepidekoak baino gorpil lodixeagoak izaten ditu. Kuadroa ia berdina da baina aldaketaxoren bat badu. Pedalak ere aldatzen dira zertxobait. Ziklo kroseto karrerarako bi bizikleta behar dira. Lehorra baldin badago ondo, baina lokatza dagoenean pisu handia hartzen du eta asko nabari da korrika egiterakoan.

errepidekoa?

Biek batera: Ziklo krosa.

Zalantzarik ez duzue orduan.

Jon Ander: Txikiak ginenean, ziklo krosa esaten genuen beti. Gorka Izagire-eta beti ziklo krosetan ikusi eta sekulako gogoia sartzen zitzaigun ziklo krosetan ibiltzeko. Urteak kontatzen ibiltzen ginen ziklo krosetan parte hartzeko. Gehiago erakarri gaitu.

Baina etorkizuna?

Jon Ander: Hori zaila dago. Errepidetik ateratzea ere oso-oso zaila da, eta ziklo krosetik gehiago. Saiatu behintzat egingo gara.

Errepidekoan zer moduz ibili izan zarete?

Jon Ander: Hor ibiltzen gara, erdi parean. Jende gehiago ere badago eta ezberdina da.

Peio: Jende gehienak errepidea bakarrik egiten du. Haiek entrenatzen hasita daude.

Jon Ander: Ziklo krosetan indartsuenak irabazten du, baina errepidekoan, zorte gehienak duenak ere bai. Oso-oso ezberdinak dira.

Peio: Askoz ere zailagoa da errepidekoa.

Noraino iristea gustatuko litzaizueke?

Jon Ander: Ahalik eta urrutiena. Ziklo krosetan ona ateratzea errazagoa dago errepidean baino. Baina askoz ere diru gutxiago irabazten da ziklo krosetan, bizitxerik ez dago, hemen behintzat. Eta Belgikan ona ateratzea oso zaila da. Belgikara joan eta hango onenen artean aritzea oso ona izango litzateke. Harutza joan eta han ondo ibiliz gero, hemen ere aukera gehiago ematen dizkizue. Pixkanaka bidea egin dezakezu.

Hobeto ordainduta dago?

Peio: Han txiki-txikitatik ordaintzen da.


Jon Ander: Munduko onenak, milioi bat euro irabazten ditu urtean. Karrera garrantzitsuetan ateratzeagatik, antolatzaileek 8.000 euro ordaintzen dizkie. Ona baldin bazara, 3.000-4.000 euro ematen dizkiete.

Nahiko zigortutako kirola da txirrindularitza.

Jon Ander: Bai, esango nuke.

Gazteak hala ere bazabiltzate.

Peio: Gu gustura gabiltza eta horregatik jarraitzen dugu. Badago jendea gurasoek uzten ez diena, dopaje kontuagatik.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala


Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Beasain

Urtarrileko ekintzak

Urtarrilak 21, osteguna:

17:30ean: Ipuin kontaketa, Mertxe Aizpuruarekin. 3-6 urte bitarteko haurrentzat. Udal Liburutegian.

Urtarrilak 27, asteazkena:

09:30ean: Hitzaldia: Elikadura osasuntsua. Hizlaria, Leire Ezkurra (Dietetika eta elikadura aholkularia). Udaletxeko Batzar aretoan.

Urtarrilak 29, ostirala:

22:15ean: Antzerki amateur: 'Aquí no paga nadie'. Usurbe Antzokian.

Gerra zibilaren deshilobiratzei buruzko erakusketa

Aranzadi Zientzia Elkartek, Gerra Zibilaren garaiko deshilobiratzei buruzko argazki erakusketa prestatu du. Urtarrilaren 31ra arte egongo da zabalik erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan. Orduategia: lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Goieniz zine kluba

XXXI. zikloari hasiera emango dio Goieniz zine klubak, urtarrilaren 14an. Martxoaren 11ra arte, 8 film emango dira, ohi bezala, ostegunetan, gaueko 9etan, Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrerak 3,5 euro balio du. Ziklo osorako abonuak, 15 euro balio du. Datozen lerrootan dituzue urtarrileko filmak.

Urtarrilak 14, osteguna:

21:00etan: 'Frozen River'. Courtney Hunt.

Urtarrilak 21, osteguna:

21:00etan: 'Still walking'. Hirokazu Kore-eda.

Urtarrilak 28, osteguna:

21:00etan: 'El cuerno de la abundancia'. Juan Carlos Tabio.

Beasain

Neguko VIII. Bertsopaper lehiaketa abian da

Beasaingo Arrano Kultur Elkartek Neguko VIII. Bertsopaper lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu. Otsailaren 22an bukatuko da lanak aurkezteko epea. Ohi bezala, bi talde edo adinetan banatu dute lehiaketa.

A taldea

2010ean 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak. Gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso idatzi beharko dituzte. Gaia eta doinua libreka izango dira. Irabazlearentzat 400 euroko saria egongo da.

B taldea

2010an 18 urte baino gehiago beteko dituztenak sartzen dira talde honetan. Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dituzte partehartzaileek. Kasu honetan ere, gaia eta doinua, libreka izango dira. Irabazleak, 700 euro jasoko ditu. Maila honetan, Goierriko onenaren bertso sorta ere sarituko dute, 250 euroko sariarekin.

Lanak bidaltzeko bi bide daude: batetik, postaz, Beasaingo Kale Nagusiko 12. zenbakira bidaliz, eta bestetik, posta elektronikoz: negukolehiaketa@gmail.com. Martxoan egingo den bertso jaialdian egingo da sari banaketa.

Garingo festak

San Sebastian jaiak ospatuko dituzte garindarrek urtarrilaren 23an eta 24an. Jarraian duzue auzotarrek prestatutako egitaraua.

Urtarrilak 23, larunbata:

13:00etan: Kanpai bueltak eta altxafuegoak.

14:00etan: Herri bazaria, Muñogain auzo elkartean. Ondoren, mus txapelketa.

18:00etan: Haur jolasak auzoko pilotalekuan: aulki-jokoa, koskol biltzea, zaku-karrera, eta abar. Arratsaldean trikitilariak alaituko dute ilunabarra.

Urtarrilak 24, igandea:

10:30ean: Goiz eresia Beasaingo udal txistulariekin.

11:00etan: Meza Nagusia. Beasaingo San Martingo abesbatzak eta herritarrek Misa Angelis abestuko dute.

12:15ean: Herri kirolak eliza aurreko plazan. Eguerdietan, esku-langintza erakustaldia.

Eguerdian: Beasaingo Udal Txistulariek joko dute.



mazda


☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

Bikar, S. A.

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN



PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Beasain Ordizia

Antzerkiaren Garaia

Urte berriarekin batera, Beasaingo eta Ordiziako udalek, Antzerki Garaia egitaraua prestatu dute urtarritetik apirilera. Launa antzerki emanaldi izango da herri bakoitzean. Denboraldi osorako abonua eros daiteke, 60 eurotan, Ordiziako Herri Antzokiko leihatilan eta Barrena jauregian, eta Beasaingo Usurbe Antzokiko leihatilan eta Udaleko Kultura Sailean. Jarraian duzue egitarau osoa.

Urtarrilak 22, ostirala:

22:15ean: 'Xabinaitor' (Gorringo taldea). Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Otsailak 5, ostirala:

22:15ean: 'Aitarekin bidaian' (Hika teatroa). Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Otsailak 19, ostirala:

22:15ean: 'Euskarazetamol' (Ez dok hiru Bikoteatroa). Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Martxoak 5, ostirala:

22:15ean: 'Arrastoa' (Txalo produkzioak). Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Martxoak 26, ostirala:

22:15ean: 'Marika de playa' (Glu glu producciones). Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Apirilak 16, ostirala:

22:15ean: 'Cocidito madrileño 2' (Glu glu producciones). Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Apirilak 23, ostirala:

22:15ean: 'Lo que ellos ignoran de ellas' (Erre produkzioak). Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Ordizia

Zinea

Asteburuez gain, urtarritleko asteazkeneetan, zine alternatiboa ikusteko aukera izango da Herri Antzokian, gaueko 9.30etan. Jarraian duzue urtarritleko egutegia.

Urtarrilak 17: 'Ponyo en el acantilado'. 16:45ean.

Urtarrilak 20: 'Al Otro lado' (zine alternatiboa).

Urtarrilak 23 eta 24: 'Algo pasa en Hollywood'. 19:30ean eta 22:15ean.

Urtarrilak 24: 'Lluvia de albondigas'. 16:45ean.

Urtarrilak 25: 'Algo pasa en Hollywood'. 19:30ean.

Urtarrilak 27: 'Contra la pared' (zine alternatiboa). 21:30ean.

Urtarrilak 29: 'In the loop'. 22:15ean.

Urtarrilak 30 eta 31: 'In the loop'. 19:30ean eta 22:15ean.

Otsailak 1: 'In the loop'. 19:30ean.

Urtarrilak 31: 'La brujula dorada'. 16:45ean.

Itsasondo

Urtarrilaren 17an jokatu da ziklo kros proba

Itsasondoko ziklo kros proba jokatu da urtarritaren 17an, 10etan hasita. Emakumezkoen, beterranoen eta seniorren lasterketarekin hasiko da jardunaldia. 11:00etan, kadeteen txanda izango da; 12:00etan jubenilena eta 13:00etan, elite eta 23 urtez azpikoena.

Ikaskide

akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierrko Unibertsitatea

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkuloa, ikasketa teknikak



Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa

Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgia
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:
astehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32



Mutiloako eskolaumeak, 1943-44 ikasturtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Patxi Arruabarrena (Liernigarakoa), Joxe Telleria (Odio), Pedro (Dototegi), Juan Intxausti (Iturrioz), Esperantza Egaña (Mutiloako maistra), Gonzalo Olaetxea (Eskribauenea), Juan Olaetxea (Eskribauenea), eta Juan Alustiza (Errotatxo).

Beheko ilaran: Luis Arruabarrena (Liernigarakoa), Jesus Telleria (Atiberhaundi), Antonio Iparragirre (Ugalde), Antonio Telleria (Enatarriaga), Migel Murgiondo (Murgiondo), Joxe Intxausti (Urbiet), Fernando Murgiondo (Agerre), Genaro Oiarbide (Gerrikogoitiberri), Joxe Goia (Sutegi) eta Felipe Telleria (Mendizabalgoikoa).



**ARANDIA
GARAJEA**
Autoen konponketa
N-1, z/q Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

**ZUBARA**
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Berogailu dotoreak kolore eta akabera ezberdinekin



**APROBETXATU
PROMOZIO BEREZIA
ORAIN!**




Orain beheko suetan erakusketa berria :

Biomasa EVE planarekin

Bertan 40 aparatu baino gehiago ikusteko aukera
(zurezkoak, gasezkoak, pelletezkoak)

Beheko suak neurritan eta bertan diseinatuak

Sukalde eta bainu gelatan adituak



**Zeramikan
azken
diseinuak**


**Bainugelatan
aukera
zabala**



SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



IHAUTERIAK 2010



Elbarrena Industrialdea
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

www.jaiakdenda.com

**EUROPAKO MOZORRO
DENDARIK HANDIENA (1.000 m²)**

